

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


Covid-19ak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan izan duen eragina

Lehen txostena_2020ko apirila

**Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia-
Observatorio Vasco del Tercer Sector Social**

Gasteiz, 2020ko maiatzak 12.

Zer eskaintzen du txosten honek?



Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Sareen Sareak Covid-19aren krisi sozialaren ondorioz gizarte-erakundeak jasaten ari diren eragina ezagutzeko agertutako interesa eta kezka dela eta sortu da lan hau.


Ahalik eta argazki zehatzena erakutsi nahi dugu. Hala, sektoreko sare eta erakundeek, Eusko Jaurlaritzaren eta beste instituzio batzuen babesarekin, **krisi honek esku-hartze sozialaren hartzaileengan eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan ere gaur egun duen eta etorkizunean izan dezakeen eragina arintzeko ekintzak garatu ahal izan ditzaten.**

Eragina neurtzeko, **fokua bi norabidetan jarri dugu (ERAKUNDEAK ETA HARTZAILEAK)** eta lau ardatz aztertu ditugu:

- Hartzaileengan krisi honek izan duen eragina.
- Erakundeen jarduera edo zerbitzuetan izandako eragina.
- Haietan lan egiten duten boluntario eta ordainpeko langileengan izandako eragina.
- Erakundeen baliabide ekonomikoetan izandako eragina.



Nola egin dugu lan hau?



Aurkezten dugun ikerlana, apirileko **3 astetan** egindakoa, **larrialdi-testuinguruan** sartu behar da eta osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisia gaur egun hartzaileengan eta erakundeetan izaten ari den **eraginaren berehalako ikuspegia** izateko beharra zegoelako egin da.

ERAGINAREN LEHEN NEURKETA (APIRILA)

Batez ere **berehalako orainaldiaz hitz egiteko aukera ematen duen bat-bateko argazkia.**

ERAGINAREN BIGARREN NEURKETA (IRAILA)

Lan honen ondoren, **eraginaren bigarren neurketa bat** egingo da (ziurrenik irailean). Beste argazki bat, egungo larrialdi-egoera gaitutakoan.

Lan-prozesuan, **erakunde kopuru handia sartzen saiatu gara (onlineko galdetegi bidez)**, eta aldi berean, informazioa lehenbailehen lortzeko **erantzun azkarra** izateari lehentasuna eman zaio (galdetegia **astebetez egon da zabalik**).

184 erakunde

Azterketa kuantitatiboa osatzeko, **4 eztabaida-talderen** bidez kontsulta kualitatiboa egin da (online, konfiamendua dela eta). Horrek informazio erabilgarria eman digu sektorearen diagnostikoa aberasteko.



Ia 200 erakundetara iristea lortu dugu. Erakunde sozialak, lurralde ugaritakoak, askotariko jarduerak dituztenak, hartzaileen kolektiboak ere askotarikoak eta neurri ugaritakoak. Horiek dira **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko aniztasun-errealitatearen erakusgarri**.




Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaz hitz egiten dugunean, zertaz hitz egiten dugu?

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala aipatzen dugunean, zaugarritasun- edo bazterkeria-egoeran, desberdintasuna, babesgabetasuna, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateen **gizarteratzea sustatzea eta pertsonen eskubideak modu eraginkorrean gauzatzea** bultzatzea bereizgarri dituen sektore bat aipatzen dugu.


Herritarren ekimen asketik sortutako **esku-hartze sozialeko eta ekimeneko ia 4.000 erakunde**, eta horietan **158.000 boluntario** baino gehiago eta **40.000 ordainpeko** inguru daude, **euskal BPGren % 2,3** inguruko bolumen ekonomikoarekin.

Egitura sozial zabala, **euskal gizartearen nortasun-ikur** dena.

Iturria: Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia.
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuria (aurrerapena)



Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren mendean, Sareen Sareak eta beste erakunde batzuek parte hartzen duten gobernantza-eredu batekin, **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia, 6/2016 Legean aurrez ikusita bezala, 2020an** jarri da martxan, Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiaren 14 urteko ibilbidea jasota. Bizkaikoak lehendik ere garatzen zituen Euskadi osorako jarduerak, Sailaren laguntzarekin.



Hartzaileengan izan duen eragina

% 68

- **Konfinamenduaren ondoriozko arazoak** (ezustean etorritako arazo psikologikoak edo lehengoak larritzea, arretarik eza, erreferentziak galtzea eta abar)



Gehien bat **mendekotasuneko** arrisku-egoeretan dauden eta/edo **desgaitasuna** duten pertsonen arreta ematen dietenen artean; **osasunaren** eta **gizarte-zerbitzuen** arlokoak.

% 66

- **Arraila digitalari lotutako arazoak** (Internetarako konexiorik edo ordenagailurik ez izatea, tresna horien erabilera mugatua, informaziorik eza, eskolan atzeratzea eta abar)



Mendeko pertsonengan edo **babesgabetasun-**egoeretan daudenetan ugariagoak, baita **zeharkako eremu sozialetako** erakundeen hartzaileen artean ere.

% 64

- Eta **baliabide ekonomikoen gabezia**



Batez ere **bazterkeria-egoeran** edo **-arriskuan** eta **babesgabetasun-**egoeretan dauden pertsonen artean. **Enplegu-**erakundeek ere detektatu dute.

% 50
baino
gehiago

Baina ez dira gaur egun pertsona horiek jasaten dituzten arazo bakarrak. **Nahi gabeko bakartasuna** edo **babes-sarerik ez izatea**, **enplegua galtzea**, **osasuna kaltetzea** edo **txirotasuna handitzea** dira erakundeen hartzaileak bizitzen ari diren testuinguruaren ezaugarriak.

Gainera, **hezkuntza arloko arazoak**, arazo **administratibo** edo **juridikoak**, **elikadura** arazoak edo **ostatu** arazoak ere detektatu dira, besteak beste.

*Epe laburrean, **baliabide ekonomikoen gabezia, txirotasuna handitzea eta/edo materialik gabe egotea eta ordainpeko lana galtzea** izango dira hartzaileen artean gehien zabaldutako arazoak (orain izaten ari dena baino gehiago).*

Hartzaileei buruzko zeharkako hausnarketa batzuk

Egoera berrietara **egokitze**ko gaitasun handia dute, **erresilientzia** handia erakutsi dute eta erantzun positiboa eman dute.

Funtsezkoa izan da **familien eta laguntza-sare naturalen** rola, hartzaileentzat eurentzat eta erakundeentzat balio handikoak dira. Nabarmentzekoa: adimen-desgaitasuna duten pertsonak, buruko osasun-arazoak eta abar.

Diskurtso publikoan badirudi hartzaile batzuk **ikusezin bihurtzen** ari direla (desgaitasuna duten pertsonak, buruko gaixotasuna dutenak, zaurgarritasun-egoeran dauden haurrak...) eta beste batzuk, aldiz, COVID-19ak haietan eragin larria duelako askoz gehiago bistaratu direla.

Komunikabideen arreta jaso duten kolektiboen **gizarte mailako estigmatizazioa** (adinekoak, migratzaileak edo ijitoen komunitatea) COVID-19arekin lotu da, kasu batzuetan konnotazio kaltegarriekin (kutsatzeko edo transmititzeko arriskua).

Bereziki kezka eragiten duten gai batzuk kolektiboen arabera

(Txostenean kolektibo gehiago)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HAURRAK


- **arraila digitala**, bereziki familia zaugarrienen artean.
- **familia-ingurune aztoratueta, arazotsueta edo biolentoeta** egon litezkeen umeen **larritasun eta estres** egoerak.
- udan eta hurrengo ikasturte hasieran familiek izango duten egoera, aurreikuspenen arabera **udako jarduerak bertan behera geratuko baitira**.
- **jangela-bekak** dituzten umeen **elikadura eta osasuna**.

ADINEKOAK

- haien egoera animiko eta **psikologikoa, nabarmen jaitsi baita** konfinamenduaren azken zatian, bereziki **mendekotasun handiena dutenen artean**. Edonola ere, haien egokitzeko gaitasunari dagokionez ere irakurketa positiboa egin daiteke.
- adinekoak izaten ari diren tentsioa, **“bizitza zaintzearen” eta “bizitzearen” artean**. Nolabait bizitza, osasuna babesten ari da, baina giza kontaktua eta kontaktu soziala, **zaintza emozionala eta harreman sozialak**, aldiz, murrizten.

BAZTERKERIA EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

- enplegu prekarioak zituzten edo ezkutuko ekonomian lan egiten zuten familien eta pertsonen **enplegu-galera**.
- Lehendik bazterkeria-arriskuan edo zaugarritasun-egoeran zeudenen artean **txirotasuna eta/edo material gabezia areagotzea**.
- etxebizitza topatzeko edo mantentzeko egoera zailek sortutako **ostatu-arazoak**, pilaketak pisuetan, pentsioetan...
- konfinamendua dela eta larrialdiz egokitutako ostatueta arreta emandako pertsonen **profiletara egokitutako ibilbideak** sortzea.



Eragina zerbitzuetan eta jardueretan

% 83

- **Zerbitzu edo jardueren aldaketa edo berrorientazioari** lotutako arazoei aurre egin behar die: Onlineko formatura bihurtzea, telefono bidezko laguntza...



Bi kasuetan joera orokortua da, edozein izanik ere erakundearen ezaugarriak.

% 81

- Bere **jardueretako batzuk bertan behera edo etenda** geratu dira. Prestakuntzako eta gizarteratzeko aurrez aurreko jarduerak dira, desgaitasuna duten pertsonentzako txangoak, haurrentzako kanpaldiak, zaurgarritasun-egoeran dauden haurrentzako eskolako indargarria, buruko gaixotasuna duten pertsonekin pisuetan taldeko tailerrak, indarkeria jasaten duten emakumeekin egindako esku-hartzeak eta abar.



Epe laburrean, euskal erakundeek erdiek diote, aurreikuspenen arabera, arazo horiekin jarraituko dutela.

% 46

- Ia erdiek **zerbitzuak itxi** egin behar izan dituzte (eguneko zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzako okupazio-zentroak, zaintzaileentzako arnasa, hezkuntza ez-formaleko gazte-zerbitzuak eta garapen komunitarioa, txertatze-enpresak eta abar).



Eragina bereziki nabarmena da **mendekotasun-egoeran edo - arriskuan dauden pertsonen** arreta eskaintzen dieten erakundeek kasuan, eta zeharkako arlo sozialean eta enpleguaren arloan lan egiten duten erakundeetan.

% 38

- Erakunde batzuek, hala ere, sortzen ari diren beharrei erantzuna emateko **jarduera edo zerbitzu berriak txertatu** dituzte.



Batez ere **mendekotasun**-egoeran edo -arriskuan dauden pertsoneri zuzendutako erakundeen artean eta **erakunde handien** artean.

% 50


- Osasun-**materialaren gabezia** arazoa da erakundeen erdientzat.



Batez ere **mendekotasun**-egoeran edo -arriskuan dauden edo **desgaitasuna** duten pertsonengana bideratutakoen artean; **gizarte-zerbitzuen** arloan eta **erakunde handietan**.

Epe laburrean, erakundeek zuzeneko arretan gehiegizko karga handituko zaiela aurreikusi dute, eta jarduera edo zerbitzu berriak edo beste funtzio sozial batzuei lotutako jarduerak sartuko dituztela (beharrak detektatzea, sentsibilizazioa, salaketa...).

Zerbitzuei eta jarduerari buruzko zeharkako hausnarketa batzuk



Erakundeetatik eskaintzen diren zerbitzu eta jardueren **erlazio-izaeraren** balioak bereziki jasan du Covid-19aren eragina, eta horrek kezka sortzen du, aurrez aurretik sortzen duen lotura dela eta.

Krisiak sektorearen funtsa “berriz aurkitzea” ekarri du: pertsonalizazioaren garrantzia (arreta bakoitza pertsona eta testuinguru bakoitzera egokituz) eta **pertsonak erakundearen erdigunean** jartzearen garrantzia.

Jardueren eta zerbitzuen **bideragarritasunaren inguruko kezka** handia dago. Baina ziurgabetasunaren eta presaren gainetik, erakundeek erakutsi dute gaitasun handia dutela testuingurura **egokitzeko** eta zerbitzuetatik beren burua **berrasmatzeko**.

Boluntarioen eta ordainpekoen artean izan duen eragina

Boluntarioak
eta
ordainpekoak

% 69

- Lan-baldintzak funtsean aldatu direlako **jardueraren kudeaketarako zailtasunei** egin behar die aurre (telelana, kontziliazioa...).

Joera orokortua, baina zerbait handiagoa **babesgabetze**-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin lotuta, **aisialdian** eta **gizarte-zerbitzuetan**

% 63

- **Arrisku psikosozialen** igoera adierazten du (estresa, higadura emozionala...)

Gehien bat **mendekotasunarekin** lotutakoetan, **gizarte-zerbitzuen** arloan eta erakunde **handietan**.

% 60

- **Kontratazio-baldintzetan aldaketak** adierazi ditu.

Bereziki, **mendekotasunari** eta **desgaitasunari** lotutakoetan eta **enplegu**-erakundeetan.

- **Osasun-arriskuak, boluntarioen kudeaketako zailtasunak** edo **EEE nahiz ABEEak** ere hor daude.

Kudeaketa-zailtasunei lotutako arazoek presentzia handiagoa dute erakunde **txikietan**.

Epe laburrean, aurreikuspenen arabera, arrisku psikosozialek hor jarraituko dute boluntarioen eta ordainpekoen kasuetan.


Boluntarioei eta ordainpekoei buruzko zeharkako hausnarketa batzuk

Erakundeetako profesional gehienek lan-jarduera aldatu zaiela ikusi dute (zuzeneko arretako kargak, jardueraren berrorientazioa...) eta aldaketari **profesionaltasunez eta dena emanez** egin diote aurre.

Boluntarioei ere erakundeetako parte-hartzea aldatu zaie. Eta hala ere, erakunde askok adierazi dute **konpromisoa** ari direla erakusten, eta elkarteen egitura indartu egin dela.

Zuzeneko arreta eskaintzen ari diren pertsonentzat **segurtasuneko materiala** hornitzeko zailtasunak izatea kezagarria da, laneko gainkarga baitute, gainera.

Erakundeek arreta berezia jartzen die profesionalak aurre egin behar izaten dieten **arrisku psikosozialei**.



Eragina finantzaketan eta baliabide ekonomikoak

% 63

- **Finantzaketari dagokionez ziurgabetasuna** adierazi du.



Joera orokortua, eta pixka bat handiagoa **mendeko** edo **desgaitasuna** duten pertsonen arreta ematen dieten erakundeetan, **enplegu arlokoetan** eta **zeharkako sozioetan**.

% 31

- **Norbere finantzaketa % 10 baino gehiago jaitsi** dela ikusi du.



Ehunekoak pixka bat handiagoak dira enpleguaren arloko erakundeetan eta **Gipuzkoakoetan**.

% 25

- **Ordainketa** publiko eta pribatuetan **atzerapenei** aurre egin behar die.



Pixka bat handiagoa **bazterkeria**-egoeran dauden pertsonen arreta ematen dietenen artean, **enplegu** arloan eta **erakunde handietan**.

Orain arte aztertutako arazoetan epe laburreko eraginean jaitsiera izatea aurreikusi da. Ez, ordea, baliabide ekonomikoei eta finantzaketa-arazoei dagokienez: ziurgabetasuna, atzerapenak ordainketetan, likidezia falta, finantzaketa publikoaren jaitsiera eta abar.

Finantzaketari eta baliabide ekonomikoei buruzko zeharkako hausnarketa batzuk

Finantzaketarekiko eta izaera publikoko baliabide ekonomikoen inguruko **ziurgabetasuna** agerikoa da eta kezka sortzen du “**osasun arloak arlo soziala jateko**” aukerak. Beldurrez ikusten da **kontratu edo hitzarmen batzuk aldi baterako etetea edo bertan behera uztea**, baita egungo diru-laguntzak eta etorkizunekoak gelditzea ere (bereziki erakunde edo elkarte txiki eta ertainetan eragiten du horrek) eta abar.

Erakundeen eskaera da instituzio publikoetatik **sektorearen espezifikotasuna aitor dadila** (enprekin gertatzen den moduan, laguntza espezifikoak dituzte).

Likidezia-gabezia, zerbitzu batzuetako diru-laguntzen edo kontratuen ordainketa moduaren eraginez, datozen hilabeteetan larritu egin liteke. **Kreditu-lerroetan** igoera ari da gertatzen, presazkotasunari eta **altxortegiko arazoei** aurre egin ahal izateko.

Hitzartutako soldata-igoerak edo **lan-hitzarmenak** betetzeko zailtasunak ere kezka-iturri dira. Baita krisian hartutako **ustekabeko gastuek** izango duten eragina ere (osasun-materiala, zerbitzu berriak eta abar), edo **finantzaketa pribatuaren** jaitsiera.



Erakundeak inoiz baino gehiago ari dira frogatzen **egiten duten lanaren balioa**, neurri honetako larrialdi sozialaren testuinguru honetan, gai izaten ari baitira **urgentziaz eta beste instituzio batzuekin batera egituratzeko eta koordinatzeko**, krisi honek ekarri duen egoera-aldaketa dela eta **eragin handiena jasan dezaketen pertsonengan** eragin horiek arintzeko: **mendekotasun-egoeran edo -arriskuan eta nahi gabe bakarrik dauden adinekoak, bazterkeria-egoeran daudenak, haur eta nerabe zaurgarriak, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak eta haien seme-alabak, desgaitasuna dutenak, buruko gaixotasunak dituztenak eta abar.**



Baina neurri horretako krisi batek sortzen duen **eraginaren aztarna** orain presente dago, eta epe labur eta ertainean ere **ondorioak ekarriko ditu** erakundeentzat eta haien jardueraren hartzaile direnentzat. Azterlan honen bigarren fasean saiatuko gara epe laburreko eragina aztertzen.